



Gizarte Zerbitzuetan esku- hartze soziohezitzailea. Araudia eta unibertsitate eta profesionalen arteko elkarlana



Prozesu partekatu baten ekarpenak.

Eka. 16 - Eka. 17 2026

Kod. G02-26

Mod.:

Aurrez aurrekoa

Edizioa

2026

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 16 - Eka. 17 2026

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea



Azalpena

Esku-hartze soziohezitzailearen prestazioari buruzko hausnarketa eta ekarpenak aurkezten dira, 185/2015 Dekretuak ezarritako Zerbitzu eta Prestazioen Zorroan jasotako zerbitzuetan, haren ezarpen prozesuan esku hartzen duten profesionalen arteko lankidetzatik eta arlo honi dagokionez unibertsitatearen eta elkargo profesionalaren artean eraturako batzordearen ibilbidetik abiatuta. Testuinguru marko bat eskaintzen da, Gizarte Zerbitzuen Legearen (12/2008) eta aipatutako Dekretuaren jatorria oinarri hartuta; bertan, lankidetzaren interinstituzionalaren prozesuan izandako zenbait mugari esanguratsu, lan batzorde espezifiko baten sorrera eta egindako jarduerak azalduko dira, dagokion ekoizpen teknikoarekin batera.

Era berean, gizarte-hezitzaileek kudeatzen dituzten Zorroko zerbitzuak deskribatzen dira, eta bi lantaldek egindako azterketa kritikoaren ondorioak aurkezten dira, Euskal Autonomia Erkidegoan batzordearentzat bereziki esanguratsuak diren bi zerbitzuri buruz (1.3 eta 2.2.3 zerbitzuak).

Oro har, akademiaren eta jardun profesionalaren arteko lankidetzaren nabarmentzea ere bada helburua, eta horren adibide garbi gisa aurkezten da lan batzorde honen eginkizuna, prozesu honetako ekintza nagusietako bat delarik.

Helburuak

Profesionalen kolektiboaren eta unibertsitateko irakasleen arteko lankidetzaren emaitzak helaraztea, Gizarte Hezitzaileen Elkargo Profesionalak (GHEE-CEESPV) eta Euskadiko hezkuntza sozialeko gradua eskaintzen duten unibertsitateek (EHU-HEFA / Deustuko Unibertsitatea-Donostia) egindako ekarpen bateratuaren bidez.

Zorroko zerbitzuetan garatzen den esku-hartze soziohezitzaileari buruzko kontraste tekniko eta profesionalek eratorritako hausnarketak eta ondorioak partekatzea, esku-hartze soziohezitzailean diharduten profesionalekin izandako elkarrizketan oinarrituta.

Esku-hartze soziohezitzaileak administrazio publikoen esparruan garatzen diren jardunetara hobeto egokitzea sustatzea, praktika eraginkorragoak eta koherenteagoak bultzatzeko.

Arlo akademikoaren inplikazioa indartzea alderdi teknikoetan, unibertsitateko prestakuntzaren eta jardun profesionalaren arteko lotura sendotzeko, eta irakaskuntza-edukiak jardunaren eguneroko behar eta eskakizunetara egokitzeko.

Lankidetzaren



Programa

2026-06-16

09:00 - 09:15	Erregistroa
09:15 - 09:30	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Ikastaroaren aurkezpena/Presentación del curso Asier Huegun Burgos EHU. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea (HEFA) - IrakasleaHizkuntza: euskara Ainhoa Martín Blazquez EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa - Gizarte HezitzaileaHizkuntza: español
09:30 - 10:30	“Ley de Servicios Sociales y Decreto de Cartera: antecedentes, proceso participativo y su aprobación” Elena Ayarza Elorriaga Ararteko - Haur eta Nerabeentzako Bulegoko ArduradunaHizkuntza: español Jesús Otaño Maiza EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa - AholkulariaHizkuntza: español
10:30 - 11:30	Mahai ingurua: “Unibertsitatearen eta Gizarte Hezkuntzaren elkargo profesionalaren arteko lankidetzeta Gizarte Hezkuntzan. Gizarte Zerbitzuetan Gizarte Hezkuntza garatzeko ekarpen teknikoak - El trabajo colaborativo entre la universidad y el colegio profesional en la Educación Social. Aportaciones técnicas para el desarrollo de la Educación Social en los Servicios Sociales.” Jesús Otaño Maiza EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa - AholkulariaHizkuntza: español Asier Huegun Burgos EHU. HEFA - IrakasleaHizkuntza: euskara Ainhoa Martín Blazquez EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa - Gizarte HezitzaileaHizkuntza: español
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	“Intervención socioeducativa en el ámbito local: proximidad, prevención, atención y protección. Aproximación crítica (servicio 1.3).” Gorka Tagle Garmendia GazteLeku - Gizarte HezitzaileaHizkuntza: español Jesús Otaño Maiza EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa - AholkulariaHizkuntza: español
13:00 - 13:30	Sintesia
15:30 - 17:30	“Esku-hartze soziohezitzailea prestazio teknikoa Zorroko zerbitzuetan. Haur eta nerabeentzako arreta-zerbitzuak, eta bazterketa-egoeran dauden helduak (ikusentzunezkoa)- La prestación técnica de intervención socioeducativa en los servicios de la Cartera. Servicios de atención a la infancia y adolescencia, y a personas adultas en situación de exclusión (audiovisual).” Jon Mikel Luzarraga Martín EHU. HEFA - IrakasleaHizkuntza: euskara

2026-06-17

09:15 - 09:30	Egunaren aurkezpena-Presentación del día
---------------	--

09:30 - 10:30	<p>“ Identitate profesionala Gizarte Zerbitzuetan egiten den esku-hartze soziohezitzaileari begira “</p> <p>Itsaso Arozena Arozena EHU. HEFA - IrakasleaHizkuntza: euskara Asier Huegun Burgos EHU. HEFA - IrakasleaHizkuntza: euskara</p>
10:30 - 11:30	<p>Mahai ingurua: “Gizarteratzeko zailtasun larriak dituzten pertsonekin egiten den esku-hartze soziohezitzaileari buruzko gogoetak (2.2.3 zerbitzua)- Reflexiones sobre la intervención socioeducativa con personas con dificultades graves de inclusión (servicio 2.2.3)“</p> <p>Lierni Altuna Puldain Grupo Peñascal - Gizarte HezitzaileaHizkuntza: euskara Mari Mar Jimenez Ramirez Kalekka - Gizarte HezitzaileaHizkuntza: español Ainhoa Martín Blazquez EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa - Gizarte HezitzaileaHizkuntza: español Asier Huegun Burgos EHU. HEFA - IrakasleaHizkuntza: euskara</p>
11:30 - 12:00	Atsedena
12:00 - 13:00	<p>“Zerbitzu eta Prestazioen Zorroaren Dekretuko zerbitzuen ebaluazioari buruzko oharak - Apuntes sobre la evaluación de los servicios del Decreto de la Cartera de Servicios y Prestaciones“</p> <p>Raquel Sanz Álvarez SIIS - Teknikaria SIIS - Eguía Careaga Fundazioaren Dokumentazio eta Ikerketa ZentroanHizkuntza: español Ainhoa Martín Blazquez EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa - Gizarte HezitzaileaHizkuntza: euskara</p>
13:00 - 13:15	<p>Itxiera</p> <p>Ainhoa Martín Blazquez EAEko Gizarte Hezitzaileen Elkargoa - Gizarte HezitzaileaHizkuntza: español Asier Huegun Burgos EHU. HEFA - IrakasleaHizkuntza: euskara</p>

Zuzendaritza



Asier Huegun Burgos

Euskal Heriko Unibertsitatea

Hezkuntza Zientzietan doktorea da, eta Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)-ko irakaslea Gizarte Hezkuntzako Graduan; halaber, Gizarte eta Hezkuntza Eremuko Ikerketa Masterrean ere dihardu. Bere jardun akademikoan irakaskuntza eta ezagutzaren sorrera uztartzen ditu, gizarte hezkuntzaren arloan ikuspegi kritikoa sustatuz. Bere ibilbide profesionalean hamar urte baino gehiagoko esperientzia metatu du haur, nerabe zein helduekin lanean. Bere jarduera, nagusiki, dinamizazio soziokulturalaren esparruan garatu du, eta bertan hainbat proiektu diseinatu eta gauzatu ditu. Gaur egun, Gizarte Zerbitzuen batzordeko kidea da.



Ainhoa Martín Blazquez

Gizarte hezitzaileen euskadiko elkargoa

(Donostia, 1979) Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua eta Gizarte Hezkuntzan diplomaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun, Hurbildu programako aholkulari teknikoa da gizarte-zerbitzuen sisteman, haur eta nerabeen arloan espezializatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren baitan. Aurretik, udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan aholkulari tekniko gisa jardun du Gipuzkoako Hezkuntza Konpentsatorioko Partzuergoan; irakasle elkartua izan da EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Gizarte Hezkuntza eta Pedagogia graduetan; baita esku-hartze sozioedukatiboko taldeen koordinatzaile teknikoa ere Ordizia, Urretxu eta Zumarragan; eta gizarte-hezitzaile Beasaingo gizarte-zerbitzuetako esku-hartze irekiko eta gizarteratzeko programan (Lorraz Elkartea). CEESPV-GHEEren lehen zuzendaritza-batzordeko kide izan zen bokal gisa, eta gaur egun unibertsitate arteko eta gizarte-zerbitzuetako batzordeetako kidea da.

Irakasleak




Lierni Altuna Puldain



Itsaso Arozena Arozena

EHU



Elena Ayarza Elorriaga

ARARTEKO

Deustuko Unibertsitatean Psikologian lizentziatua (1986) eta unibertsitate bereko INSIDEk emandako Giza Baliabideetako graduondokoa (2003) ditu. Bere ibilbide profesionalean, esku-hartze sozioedukatiiboan, komunitate-garapenean eta gizarte-bazterketa egoeran edo arriskuan dauden pertsonen laneratzean jardun du, 20 urtetik gorako esperientziarekin. Denbora horretan, esku-hartze zuzena, kudeaketa eta aholkularitza uztartu ditu, gizarte-politika eta programen diseinu eta ezarpenean eskarmentu sendoa eskuratuz. 2008 eta 2009 artean Eusko Jaurlaritzako Gizarte Ongizateko zuzendaria izan zen. 2010eko abendutik, Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulegoko arduraduna da, eta bertatik haurren eta nerabeen eskubideen sustapena eta defentsa bultzatzen ditu.



Asier Huegun Burgos

Euskal Heriko Unibertsitatea

Hezkuntza Zientzietan doktorea da, eta Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV)-ko irakaslea Gizarte Hezkuntzako Graduan; halaber, Gizarte eta Hezkuntza Eremuko Ikerketa Masterrean ere dihardu. Bere jardun akademikoan irakaskuntza eta ezagutzaren sorrera uztartzen ditu, gizarte hezkuntzaren arloan ikuspegi kritikoa sustatuz. Bere ibilbide profesionalean hamar urte baino gehiagoko esperientzia metatu du haur, nerabe zein helduekin lanean. Bere jarduera, nagusiki, dinamizazio soziokulturalaren esparruan garatu du, eta bertan hainbat proiektu diseinatu eta gauzatu ditu. Gaur egun, Gizarte Zerbitzuen batzordeko kidea da.



Mari Mar Jimenez Ramirez

KALEXKA ELKARTEA, RESPONSABLE ENTIDAD/COORDINADORA TECNICA

Psikologoa, gizarte hezitzailea eta koordinatzaile teknikoa da Kalexka Elkartearen. Gaur egun, bazterketa sozialaren eremuan, udal eta foru eskumeneko hainbat zerbitzuren arduradun eta koordinatzaile gisa jarduten du. Gipuzkoako Foru Aldundiaren baitan, Indarkeria Matxistaren Biktima diren Emakumeentzako Arreta eta Gizarteratze Zerbitzua koordinatzen du; horren barruan, Laguntza Espezializatuko Programa (PAE), laguntza duten etxebizitzak eta Foru Laguntza Zerbitzua (SEFAC) garatzen dira. Era berean, Eibar, Elgoibar eta Zarautzko oinarrizko gizarte zerbitzuetan, bazterketa arriskuan dauden pertsonen zuzendutako esku-hartze sozioedukatiboko programetan parte hartzen du.



Jon Mikel Luzarraga Martín

Gizarte Hezkuntzan diplomatua (UPV/EHU), Pedagogian lizentziatua eta Hezkuntzan doktorea. Gaur egun, UPV/EHUko Hezkuntza Antolakuntza Sailean irakaslea da; bertan, Gizarte Hezkuntzan eskolak ematen ditu eta praktiken programa koordinatzen du. Ibilbide zabala du hezitzaile gisa hainbat esparru sozialetan, bereziki nerabeekin egindako lanean, eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeko kidea da.



Ainhoa Martín Blazquez

Gizarte hezitzaileen euskadiko elkargoa

(Donostia, 1979) Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziatua eta Gizarte Hezkuntzan diplomaduna da Euskal Herriko Unibertsitatean. Gaur egun, Hurbildu programako aholkulari teknikoa da gizarte-zerbitzuen sisteman, haur eta nerabeen arloan espezializatuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuaren baitan. Aurretik, udaleko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan aholkulari tekniko gisa jardun du Gipuzkoako Hezkuntza Kontentsatorioko Partzuergoan; irakasle elkartua izan da EHUko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultateko Gizarte Hezkuntza eta Pedagogia graduetan; baita esku-hartze sozioedukatiboko taldeen koordinatzaile teknikoa ere Ordizia, Urretxu eta Zumarragan; eta gizarte-hezitzaile Beasaingo gizarte-zerbitzuetako esku-hartze irekiko eta gizarteratzeko programan (Lorraz Elkartea). CEESPV-GHEEren lehen zuzendaritza-batzordeko kide izan zen bokal gisa, eta gaur egun unibertsitate arteko eta gizarte-zerbitzuetako batzordeetako kidea da.



Jesús Otaño Maiza

(Donostia, 1963) Gizarte Hezitzailea da, eta 1987az geroztik dihardu esku-hartze sozioedukatiboan. Bere ibilbidea zuzeneko arretan garatu du, haurrekin, nerabeekin, helduekin eta zaurgarritasun-egoeran dauden familiekin, baita prestakuntza eta aholkularitza teknikoan ere. Gaur egun, Hurbildu programako kidea da (Gipuzkoako Foru Aldundia), lehen mailako gizarte-zerbitzuetako taldeei laguntza teknikoa eta prestakuntza emateko, tokiko garapena, prebentzioa eta esku-hartze sozioedukatibo eta psikosoziala indartuz. Esku-hartze sozioedukatiboari, zerbitzuen plangintzari eta gizarte-legediari buruzko lanen egilea da. Kongresu eta jardunaldietan parte hartu du hizlari eta antolatzaile gisa. Gizarte-hezitzaileen elkarte profesionaletako kide da, baita GHEE-CEESPV eta CGCEES erakundeetako ere, eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeko kidea da.



Raquel Sanz Álvarez

SIIS - Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzua 1977an jaioa. Politika eta Administrazio Zientzietan lizentziatua (1999) eta Soziologian lizentziatua (2022) Euskal Herriko Unibertsitatean. UPV/EHUko "Gobernua eta Politika Azterketa Konparatua" doktorego programan parte hartu du. 2005az geroztik

SIIS - Gizarte Informazio eta Ikerketa Zerbitzuan egiten du lan soziologo gisa, eta bertan ikerketa eta plangintza-dokumentu ugari lantzen lagundu du Euskadiko gizarte-zerbitzuen arloan. Azken lankidetzen artean nabarmentzekoak dira Eusko Jaurlaritzarentzako laguntza teknikoa Gizarte Zerbitzuen II. Plan Estrategikoa prestatzeko, baita Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemaren zerbitzuen eta prestazioen karteraren ebaluazio-prozesuan izandako parte-hartzea ere.



Gorka Tagle Garmendia

(Eibar, 1975) Gizarte Hezitzailea, 2001etik udal gizarte zerbitzuen esparruan esku-hartze sozioedukatiboan ibilbide luzea duena. Bere esperientzia profesionala, batez ere, haurrei eta haien familiei zuzeneko arreta eskaintzean oinarritu da, bai kale hezitzaile gisa bai familia hezitzaile gisa Gipuzkoako hainbat udalerritan, Lorratz Elkartearekin lankidetzan, eta Bilbon GazteLeku erakundearekin. Bere ibilbidean zehar, bazterketa edo arrisku egoeran dauden gazteekin ere lan egin du, haien garapen pertsonala eta autonomia eskuratzea helburu duten hezkuntza-prozesuetan lagunduz. Azken hamar urte baino gehiagotan, bere lana Bilboko Rekalde auzoan garatzen du, non aktiboki parte hartzen duen gazteentzako bazterketa-arriskuko programetan, hala nola Hirikoi Programan, eta familiekiko esku-hartzean ere, Gizarte eta Psikologia Arloko Esku-hartze Zerbitzuaren (PISECO) bidez. Gainera, GHEE-CEESPVk sustatutako hainbat ekimenetan parte hartu du, eta erakunde horretako kide elkargokidea da 2007tik, 658 zenbakiarekin.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2026-06-16 ARTE
Orokorra	87,00 EUR
Matrikula murriztua orokorra	74,00 EUR
Matrikula exentzia	61,00 EUR
Gazte tarifa	25,00 EUR
Elkar	74,00 EUR
Euskaltegi edo autoikaskuntzarako zentro homologatutako kide	74,00 EUR
Irakasteko ikasten - Eusko Jaurlaritza	74,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa